

## **UPV/EHUko ARKITEKTURA G.E.T.an MATRIKULA ALDATZEKO IRIZPIDEAK:**

Erreferentziatzeko arautzat hartzen da Graduak Hezkuntzako Kudeaketa Akademikoko Araudia eta Aplikatu daitezkeen beste Arautegi batzuk (UPV/EHU) - IV. kapitulua. Izen-emate publikoa eta prezioak.

### **1- Ikasleak taldeetan banatzeko irizpideak (29. eta 30. art.)**

- Ikasle berriak lehenengo ikasturtean (1. fasea):

Ikasleek hizkuntza lerro bat aukeratu behar dute, euskara edo gaztelania. Ikasleek irakasgai guztiak hizkuntza berean egingo dituzte. Taldeen esleipena ausaz egingo da.

- Aurretik matrikulatutako ikasleak:

Ikasleek honako irizpide hauen arabera aukeratu ahal izango dute taldea:

- Derrigorrezko irakasgaiak (euskara eta gaztelania):

Ikasleek hizkuntza-lerro bat aukeratuko dute. Hau da, irakasgai guztietarako hizkuntza bat (euskara edo gaztelania) aukeratuko dute. Taldeen esleipena ausaz egingo da.

- Derrigorrezko irakasgaiak ingelesez:

Ikasleek irakasgai hauek aukeratu ahal izango dituzte matrikula egiteko unean taldeak irekita baldin badaude (ikasturteko gainerako irakasgaietan aukeratutako hizkuntza edozein dela ere).

- Aukerako irakasgaiak:

Ikasleek aukerako irakasgaiak aukeratuko dituzte eskaintzen den edozein hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingelesa), betiere izena emateko unean taldeak irekita badaude.

### **2- Matrikula aldatzeko irizpideak:**

Matrikula aldaketak, plaza librea badago eta eskatzaileak iraunkortasun-araubidea betetzen badu soilik emango dira.

Eskaerak irailaren 30erako ebatziko dira. Ikasle eskatzaileek beren G.A.U.R aplikazioa kontsultatu behar dute.

Aldaketak eska daitezke:

- Hizkuntza-lerro bereko taldeen artean (ikastaro bereko irakasgaiak hizkuntza berean talde bat baino gehiago dituztenak, 01A taldetik 01B bitartekoak, adibidez). Aldaketa taldeko irakasgai guztietan egingo da.
- Derrigorrezko irakasgaietako ingeles taldeetara.
- Aukerako irakasgaien artean.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA  
GOI ESKOLA  
TEKNIKOA  
ESCUELA  
TÉCNICA SUPERIOR  
DE ARQUITECTURA

Ez dira onartuko talde aldaketak ikasturte batetako ikasgai askeetan (euskaratik gaztelaniara edo gaztelaniatik euskarara). Hizkuntz-lerro osoaren aldaketa eskaerak kontuan hartuko dira soilik.

Matrikula aldaketa egiteko eskaerak ikasturtearen lehen astean egingo dira. Epez kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko. Salbuespenez, eta justifikatutako arrazoiengatik, matrikula aldatzeko eskaerak bigarren lauhilekoko lehen astean egin ahal izango dira.

Gainerako eskaerak motibatuta eta dokumentatuta egon beharko dira. Honako hauek izango dira arrazoi justifikatuak:

- o Osasun-arrazoiak (erantsi mediku-ziurtagiri zigilatua).
- o Lana (lan kontratua erantsi).
- o Kirol federatua (erantsi dokumentazioa).
- o Irakaslearen onespena (erantsi idatzizko onspena).
- o Ebaluazio objektiboko beste egoera batzuk

Ikasleen Idazkaritzak prestatu eta argitaratuko dituen inprimakien bidez soilik egingo dira eskaerak.

### **3- Ikasgaiak ezabatu edo gehitu:**

Ikasleek banakako irakasgaiak kentzea edo gehitzea eska dezakete. Irakasgaiak gehitu ahal izango dira, betiere tokia badago eta eskatzaileak iraunkortasun araudia betetzen badu.